

Prensa oharra

Nota de prensa



Donostiako eta Lasarte-Oriako bateragarri egiteko plana onartu da, hirugarren sektoreko lurzati handi bat antolatzeko

Plana Lasarte-Oriako Teresategi eta Donostiako Errekalde eremuei dagokie.

Tokiko Gobernu Batzordeak behin betiko onartu du Lasarte-Oria eta Donostia udalerriak Lasarte-Oriako Teresategi eta Errekalde eremuei eta Donostiako HAPOko Bide Sistema Orokorriari dagokien Bateragarri egiteko Plana.

“Bateragarri egiteko Planaren” arrazoia da sektorearen eta hari lotutako lurren aldaketa horrek eragina duela Lasarte-Oriako udalerrian dauden lurzoruetan eta, gainera, Donostiako udalerrian dauden beste lurzoru batzuetan.

Plan honen helburuak lortzeko formulatu behar den proposamenean, lehenik eta behin, hirugarren sektoreko lursail handi bat antolatu behar da, baita aprobetxamendu osagarri bat ere, hirugarren sektorekoa halaber, non, azken batean, zati batean nahiz osorik gauzatu ahal baitaiteke Udalak nahitaez eman beharreko ehunekoa, hori guztia Lasarte-Oriako udalerrian. Orobat, indarreko Plan Partzialean proposatutakoaz besteko sarbide nagusi hobetuarekin hornitu daiteke eremua.

Lehen mailako helburu gisa, gainera, dagoeneko bertan dauden enpresetara sartzeko bideen arrazionalizazioa finkatu da. Gaur egungo antolamendu-proposamenak, hasiera batean, zuzenean eragingo lioke Coca-Colaren eraikineko enpresaren alboari, baita jadanik indarreko plan partzialera gehitutako Muebles Inchaustiko albo-bideari ere, baina, eremuaren antolamendu orokorraren ikuspuntutik, eta eraginpeko administrazioek une egokian adierazi duten moduan, aipatutako aurrealde osoko bideak hobetu daitezke –bidesistema orokorraren ezarpena barne–. Dokumentuan barne hartzen du proposamen hori, antolamendu-mailan, eta dagokion unean helduko zaio.

Arcco Amara

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Donosti Coques Uno, S.L.k 2011ko maiatzaren 19an Donostiako Udalarekin sinatutako erabilera lagatzeko kontratuak bukatzeko espedientea hastea, Arcco Merkataritza Zentroko 10 lokalei dagozkienak. Lagapen-hartzaileak ezarritako kanonak ordaintzen ez dituelako ematen da amaiera hau.

Garabi zerbitzua

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du kalean utzitako ibilgailuak edo ibilgailu hondarrak kaletik kendu, eraman, tratatu, deskontaminatu eta baja administratiboa emateko zerbitzua xede duen kontratazio espedientea eta esleipen prozedurari hasiera ematea.

Prentsa oharra

Nota de prensa

Zerbitzua 2 urteko epean egingo da, kontratua sinatzen denetik hasita, eta beste 2 urtez luzatu ahal izango da. Kanona 3 hilabetean behin ordainduko da, aurreko 3 hilabeteetan tratatutako ibilgailuen arabera, haien tarifak aplikatuta.

2019an, garabi-zerbitzuak 4.372 ibilgailu eramán zituen, eta 2020ko lehen sei hilekoan 1.272 ibilgailu.

El Pilar

Tokiko Gobernu Batzordeak behin betikoz onartu du El Pilar azpiesparruari dagokion urbanizazio proiektua, 54 etxebizitza berri eraikiko dituená, erdiak babes ofizialekoak.

Proiektu honek inguru horretan beharrezkoak diren urbanizazio obrak aurreikusten ditu, eta horien onura izango dute bai etxebizitza berriek bai Zarategi pasealekuan daudenek. Horrela, Zarategi pasealekuko espaloia berrituko da, egungo autobus geltokian markesina bat jarriko da, eta Zarategin zazpi aparkaleku egingo dira, eta Marrutxipin beste hamar. Gainera, klinikako aparkaleku zaharra oinezkoentzako lorategia izango da, auzoko bizilagunek goza dezaten.

Cristina Iglesias

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Construcciones Moyua, S.L. enpresari esleitutako Cristina Iglesiasen eskultura egokitzeko Santa Klara uharteko itsasargia hartzen duen eraikinaren birgaitze eta eraberritze proiektuari dagokion obra kontratuaren behin-behineko jarraipena, 6 hilabeteko epean egin beharrekoa (obrak uztailean eta abuztuan etenda).

San Marcos errepidea

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du San Markoseko errepidea konpontzeko horma bat eraikitzeko proiektuko obrak kontratatzeko espedienteá. Lizitazioaren aurrekontua 99.301 eurokoa da eta gauzatzeko epea 2 hilabetekoa.

Konponketa-lan hori San Markoseko errepidearen magaletako batean luizi bat gertatu zelako egiten da, eurite bortitzen ondorioz, eta errepidearen drainatze-sarea kolapsatu zelako. Ondorioz, galtzadaren ertzeko zoladuraren zati bat askatu eta zoladuran arraila batzuk sortu ziren.

Jolastokieta

Donostiako Gobernu Batzordeak onartu du araubide bereziko udal etxebizitza tasatuen behin-beineko kalifikazioa aldatzea Jolastokieta Gaina azpiesparruari dagokion egikaritze unitatean garatzeko aurreikusita dauden 36 etxebizitza tasatuekin lotuta.

Hala, esparru horretan eraikitako 36 etxebizitza tasatuen sustapen-erregimena "azalera-eskubideko erregimenean" egotetik "jabari osoko" salmentako erregimenean egotera igaro da, hau da, jabetza osoan.

Donostia, 2020ko azaroaren 3an